

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza pertsonaleko lanak egiten dituztenek, prestazio ekonomiko baten baitan, 2018tik aurrera lan horretan jarduteko lanbide kualifikazioa beharko dute. Alegia, lan esperientziaren bitartez edota prestakuntzako bide ez-formalen bidez eskuratutako lan kompetentzia. Eta bestela, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako zuzendaritzak emandako laguntzaile pertsonal gisa aritzeko behin-behineko edo ez-ohiko gaitzearen ziurtagiria.

Aipatu kompetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatze prozeduraren deialdia egin da, "Pertsonen etxean gizarte eta osasun-arreta ematea" eta "Mendeko pertsonen gizarte erakundeetan gizarte eta osasun arreta ematea" barne.

Kompetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura hauetan izena emateak laguntzaile pertsonal lanetan aritzeko behin-behinean gaitzea ekarriko du, 2018ko urtarrilaren 1etik 2022ra arte. Beraz, lanbide kualifikaziorik eta ez-ohiko nahiz behin-behineko gaitzerik ez duten laguntzaile pertsonalek deialdian izena eman beharko dute.

Prozeduran parte hartzeko izen-emate epea urriaren 20ra artekoa da.

Izena emateko tokia: CIFP Meka LHII, Arregitorre 2, 20870 Elgoibar 943748019

[Informazio osagarria](#)